

HERNANI BHI
Institutua
DBH 3-4

● /2017-VI-XV osteguna/



**Mendeku
gosea**

*Egilea:
Unax Zubeldia*

// II

**Epilogo
bat**

*Egilea:
Jonas Casado Etxeberria*

// IV

**Ikasturte bukaerako
bidaiaren kronika
(DBH 4)**

*Egileak:
Lide Torres Lamuedra,
Nahuel Valdebenito Villar
eta Iraitz Apeztegia Arrondo*

// III

**Piraguetan
blai**

*Egileak:
3Ako ikasleak*

// IV

I NARRAZIOA

Mendeku gosea

1102. urtean, Europako herrixka batean familia bat bizi zen beste askorekin batera.

FAMILIAN aita gerlaria zen, ama etxeakoandrea eta biek gau izartsu batean seme bat izan zuten, eta Hermenegildo izena jarri zioten. Semea hazten joan zen eta aitak gerlari izaten erakutsi zion ezpata erabiltzen, arkuarekin geziak jaurtitzen, ezkutuarekin borrokatzen eta beste mila gauza.

1114. urtean ordea, jendeak izua zuen, ihesi zihoan, baina herensugeak sortutako sugarezko harresien erdian inguratuturik zeuden guztiak. Joaten utzi gabe, herensugeak beste herritarrak nola erretzen, irensten eta zapaltzen zituen ikustera behartzen zituen. Hor erdian Hermenegildo eta bere familia zegoen. Hermenegildo oraindik ere gaztea zenez txikia eta malgua zen eta herensugearen erasotik babesteko aukera lortu zuen bere gurasoek ez bezala. Hermenegildok bere herrixkaren eta haren herritarren sunsiketara osoa ikusteko aukera izan zuen.

Halako batean, herensugea lurreratu egin zen saguzar itxurako bere hego handiak itxiz. Herensugeak suge batek bezalako gorputz luzanga zuen, atzeko hankak sendoak eta indartsuak ziren, aurrekoak aldiz, luzeagoak ziren saguzar tankerako hego erraldoiak zituztelako. Herensugearen ezkata urdin-belutzak ezer baino gogorragoak ziren, herensugea edozein gauzetatik babesteko.

Nahas-masa hartatik ateratzean basoan galduta eman zituen egun batzuk eta ala erregearen beste gerlari batzuk aurkitu zuten arte. Gerlari haietako batek ezagutu zuen, haren aitaren laguna baitzen. Bere etxera eraman eta ostatua eskaini zion. Hermenegildo gertatutakoaren berri eman zionean bere aita eta ama mendekatuko zituela zin egin zion erresumako ikurrinari.

Urteak joan hala umea gizon egin zen eta borrokarako zituen mugimenduak asko hobetu zituen. Gorputza erabat aldatu zitzaion, lehen zituen hanka eta beso meheak gihartsuak bilakatu ziren eta gorputz argal eta ezegonkorra sendo eta mugiezina bihurtu zen. 30 urte betetzean erregearengana joan



zen herensugea akabatzeko baimenaren bila eta hala mintzatu zitzaion.

-Berorren maiestatea, utziko al zenioke ni bezalako gerlari xume bati, umezurtz utzi zuen deabruari burua mozten- Erregea errukitu egin eta baimena eta zenbait aholku eman ondoren burdin-jantzia, ezpata eta ezkutua eman zizkion.

Ondoren Hermenegildo zaldi gainean abiatu zen bere herrixkaren zerrautsen bila.

Herrixkara iristean bere etxea egongo zatekeen lekura abiatu zen zalantzarik gabe, baina hainbeste urte igaro ondoren dena larrek eta sasiek hartuta zegoen eta zail egin zitzaion hara iristea. Etxearen arrastoak ikustean hantxe gelditu zen minutu batzuk bere gurasoen oroimenez, zerbait entzun zuen arte. Soinua etxearen beste aldetik zetorren eta begiratzer

abiatu zenean lurrean agure bat ikusi zuen. Isilean ezpata zorrotik atera eta kokotsaren azpian jarri zion.

-Esan zertan ari den hemen edo ez du berorrek beste inon erortzeko aukerarik izango esan zion Hermenegildok.

-Itsumutilak bakarrik utzi duen agure gaixo itsu bat hiltzeko bezain krudela bazara aurrerantzen zion agureak. Hermenegildo errukitu eta altxatzen laguntzen zion bitartean agureak azti itsua zela adierazi zion. Orduan, une ura aprobetxatu zuen Hermenegildok herensugea non egon litekeen galdetzeko.

-Ba al daki berorrek non egon daitekeen herrixka hau suntsitu zuen herensugea?

-Bai, erregearen gotorlekutik ikus daitekeen mendi altueneko koban bizi da berorrek bilatu nahi duen herensugea.

Horrela, eskerrak eman ondoren erregearengana abiatu zen berriro. Gazteluaren dorre garaienera igo eta mendiak begiratzeari ekin zion. Agureak esandakoa ikustean zera pentsatu zuen "hura da, ez dago dudarik" eta hara abiatu zen.

Mendiaren ia tontorrean koba beltz eta sakon bat zegoen eta bertan herensugea. Hau esnatu egin zen eta gerlariari begira gelditu zen 100 metrotik gora zituen piztia.

Han borroka bortitzenetako bat hasi zen. Hermenegildori ezpata erditik hautsi zitzaion herensugearen ezkata gogorren aurka eta geratzen zitzaion zatia sugarrekin urtu zuen. Hau ikusi eta gero, Hermenegildok zaldia erabili zuen munstroa distraitzeko berak ihes egiten zuen bitartean plan bat pentsatzeko. Herensugeak zaldi harekikoak bukatzean Hermene-

gildorengana oldartu zen kobatik airean ateraz eta erresumara hurbiltzen abiadura ikaragarria.

Hirira iristean hasteko herensugea sugarrak botatzen hasi zen txoko guztietara aurrean zuen guztia suntsituz Hermenegildoren herrixkan egin zuen bezala. Gerlari guztiak herensugeari eraso egin zioten geziekin, katapultekin, harriekin... baina alferrik ez zioten urratu txikiena ere egin. Herensugeak hiria arpilatu eta herritarrak suntsitu zituen. Historian atzera gertatu bezala, herensugeak bere bizitza jarraitu zuen, hiriak suntsitzen eta herritar babes gabez elikatzen jarraitu zuen hil arte. ■

Egilea:
Unax Zubeldia

■ BIDAIA

Ikasturte bukaerako bidaiaren kronika (DBH 4)

Ondoren azalduko dugun bidaiaren kronika Hernani BHIko DBH 4. mailako ikasleok egin genuen apirilaren 2tik 6ra, eta ondoren ikusiko duzuenez Hernanitik Andaluziara eta Portugaleko Algarve lurraldean bizi izandako esperientzia kontatuko dugu.

Apirilaren 2a, igandea

Goizeko 4:30ak aldera gorroto dugun iratzargailuaren hotsak esnatu gintuen. Gosaldu, dutxatu eta maleta egiten amaitu ondoren etxetik irten ginen. Inguruan bizi garenez, elkarrekin igotzeko geratu baikin. Sagardotegi garaia zen eta Atsegindegi jendez lepo zegoen. Goizeko 5:30ak zirela kontuan izanik, ez zen parrandan zebilen jendearen txisterik falta izan. "Etxetik bota al zaituztete?" galdetu ziguten askok. Beste batzuk, ea nora gindoazen galdetu ziguten eta horrelako erantzun xelebreak entzun genituen:

-Nora zoazte?

-Andaluzia aldera, Huelvara.

-¿Huelva edo no Huelva?

Maleta guztiak autobusean sartu eta Andaluziarantz abiatu ginen. Iratzargailuak etendako lo-kuluxkarekin jarraitu genuen lehenengo geldialdira arte. Hortik aurrerako orduak, lagunekin hitz egiten, Nintendoan jolasten edo musika entzuten igaro genituen.

Leihotik begiratu orduko Plascencian ginen eta bertan, hamaiketako egin, beste autobuseko jendearekin hitz egin eta bideari ekin genion. Ondoren, Cáceresera heldu ginen. Itzalpean eseri eta bakoitzak etxean presaturiko bokata bazkaldu genuen. Hiria pixka bat ezagutu eta autobusak utzi gintuen tokira itzuli ginen.

Autobusean sartu eta tripa beteta geundenez, segituan hartu genuen lo. Esnatu eta oraindik gure helmugara, Huelvako Mazagon kostaldeko herrira, heltzeko bizpahiru ordu falta zirela esan ziguten. Aspertuta geundenez, ingurukoak zirikatzen ibili ginen hotelera heldu arte.

Iritsi orduko, bakoitzak bere maleta hartu eta gelak banatu zituzten. Maletak hustu eta hondartza gertu zegoenez, hara joan ginen. Afaldu ondoren, kalera irten ginen; baina berehala itzuli ginen hotelera, nekatuta baikuenden. Pijama jantzi, pasilloan jolasean ibili eta segituan hartu genuen lo.

Apirilaren 3a, astelehena

Berriz ere iratzargailu mada-rikatua. Hori bai, oraingoan beranduxeago jo du. Dutxatu, jantzi eta gosaltzera jaitsi ginen. Konturatu orduko autobusean ginen, Portugaleko Algarvera bidean. Faron egin genuen geldialdia; betiko moduan hamaiketako egin, herria ezagutu eta autobusera itzuli ginen.

Bertatik gertu zegoen herri batera joan ginen, Tavirara hain zuzen. Dagoeneko tripa kexaka hasiak ziren eta kostata, baina bazkaltzeko leku bat bilatu genuen. Gero, baldosa berezi batzuk zituen eraikin baten aurrean argazki pare bat atera eta plaza batean eseri ginen, goxogoxo eguzkitan.

Leihoz beteriko infernu ibiltarira itzuli ginen, eta bazkalondoko lo-kuluxka ez zen falta izan. Esnatu bezain laster berri txarrak eman zizkiguten. Gure asmoa, arratsaldea Algarveko hondartza ikusgarri horietan igarotzea zen. Baina ez zen horrela izan. Hondartza horiek urrun zeudenez, gertuago zegoen hondartza batera joatea erabaki zuten, Manta Rotara alegia. Hau ere polita zen, baina aukeran nahiago genuen bestea.

Eguraldi goxoa zegoenez, eguzkitan etzan ginen. Uretara sartzeko ideia bururatu zitzaigun, baina hankak sartu orduko egin genuen atzera. Hala ere, baten bat bi aldiz pentsatu gabe uretan sartu zen. Itsas ertzean ibili ginen paseatzen kontu kontari, baita baloiarekin jolasean ere. Bainujantzia kendu, toalla jaso eta hotelerako bideari ekin genion. Portugalen geundenez ezin izan genuen Internet-a erabili. Horregatik, guztiak muga noiz pasako zain geunden. Mikrofototik mugikorra erabil genezakeela esan zigutenean, automatikoki guztiok mugikorra atera eta martxan jarri genuen.

Hotelera iristean, motxilak hustu genituen eta afaltzera jaitsi ginen. Gauean hondartzara joatea erabaki genuen eta ondoren, gela batean elkartu ginen lagun guztiak. Gero, bakoitza be-

re gelara joan zen. Hitz egiten jarraitu genuen baina segituan lotara joan ginen, hurrengo eguna indartsu zetorrela bagenekielako.

Apirilaren 4a, asteartea

Esnatzeko modu ezberdin bat eduki genuen. Iratzargailua prest utzi genuen, baina ez genuen entzun. Bat-batean, atean kolpeak entzun genituen. Hirurok ordua begiratu eta berdina pentsatu genuen "lo hartu dugu!". Atea ireki eta lagunak zirela ikusi genuenean lasaitu ederra hartu genuen. Gosaltzera zihozela esan ziguten. Zitzu bizian jantzi eta haiekin elkartu ginen.

Egunerokoari eutsiz, autobusean igo eta paintball egitera



joan ginen. Iritsi bezain laster 10eko taldeak egin genituen. Jende asko ginenez, luze jo zuen eta guztiok asper-asper eginda bukatu genuen. Ordu erdiko iraupena zuten partidak jokatu genituen, talde bat bestearen aurka. Gainera, bero handia egiten zuen eta jokatzeko beharrezkoak ziren buzoa eta kaskoarekin kiskali egin ginen.

Eguerdian, Sevillarantz abiatu ginen. Autobusak Torre del Oron utzi gintuen. Bazkari ederra egin genuen koadrilakoek eta ondoren, Andaluziako hiriburuko bazterrak ezagutzera joan ginen. Arratsaldeko bostak aldera, Guadalquivirren barrena zebilen barkua hartu genuen eta abanikoaren laguntza asko eskertu genuen. Bat-batean jendea txaloka hasi zen eta atzera begiratzean, Sevillan ere Korrikaren alde egin genuela erakusten zuten irakasleek presaturiko peto eta globoak ikusi genituen. Ondoren, ordu bat bakarrik ge-

nuenez hirian barrena ibiltzeko, meriendatzeko zerbait eta etxe-koentzat detaileren bat erostera joan ginen.

Hotelera itzuli eta betiko moduan jarraitu genuen; afaldu, Mazagonen buelta bat eman eta hotelera goiz itzuli ginen. Lagunekin hitz egiten aritu eta berehala joan ginen lotara.

Apirilaren 5a, asteazkena

Beste goiz batez ere iratzargailuaren hotsak esnatu gintuen. Autobusean igo eta Moguerrerrantz abiatu ginen, Juan Ramon Jimenez poeta ospetsuaren herrira. Iritsi bezain laister, bazkaria egiteko behar genuena erosi genuen. Herria bisitatzeko hasi orduko etxe gehienak zuriak zirela konturatu ginen. Hainbat patio ikusteko aukera ere eduki genuen, gehienak irekita zeudelako. Burua gerturatuz gero baldosaz beteriko sarrera eder eta handiak ikus genitzakeen. Balkoiak ere dotoreak zirela iruditu zitzaigun, kolore eta mota ezberdinetako lorez apainduta baitzeuden.

Gero, berriro ere horrenbeste maite genuen ibilgailura igo eta Doñanako parkea ikustera joan ginen. Bisita mikrobusean egin genuen, biologoarekin batera,

du genuen: afaldu, Mazagonen zehar buelta bat eman eta lagun guztiak gela batean elkartu ginen. Ordua aurrera zihoan, baina guk kontu kontari jarraitu genuen eta azken gaua zenez ederki aprobetxatu eta oso ondo pasa genuen.

Apirilaren 6a, osteguna

Lo gutxi eginda edo hobeto esanda, batere lorik egin gabe, dutxatu, jantzi eta maleta presatzen hasi ginen. Triste xamar esan genion agur Huelvako Mazagon herriari, oso ondo pasa genuelako bertan.

"Puf... eta orain 15 ordu inguruko bidaia dugu..." pentsatu genuen guztiok. Maleta guztiak autobusetan sartu eta Hernanirantz abiatu ginen. Lehenengo lau ordutan, autobusa isil-isilik mantendu zen. Pare bat pertsona bakarrik zeuden esna, gaintzekoak lo joan ginen lehenengo geldialdira arte. Ordua aurrera zihoan heinean autobuseko isilunea eteten joan zen, alegia, musika altu jarri eta jendea hitz egiten hasi zen. Nintendoa piztu eta Mario Kart izeneko jokoan jolastea erabaki genuen, Nintendoa genuenok elkarren aurka ibiltzeko aukera genuelako.

eta hark eman zizkigun Doñanari buruzko azalpenak. Hasiera batean, safari batean genbiltzala zirudien. Prismatiko batzuk ere eman zizkiguten, noiz behinka agertzen ziren animaliak ikusteko. Flamenkoak ikaragarri gustatu zitzaizkigun. Nahiz eta Doñanako parkea bisitatzeko ordu txarra eta bisita luzeegia iruditu, ondo pasa genuen.

Ondoren, Rocio izeneko herrikerria joan ginen. Bakeroen pelikula batean bezala sentitu ginen bertan. Momentu batez, musika eta bakero txapela bakarrik falta zitzaizkigula pentsatu genuen. Etxe guztiak elkarren ondoan zeuden eta lurrean hondarra zegoen. Gainera, etxe bakoitzak portxe antzeko bat zuen, zurezko barandarekin. Hala ere, oso herri bitxia eta polita iruditu zitzaigun. Bertako belardi batean pixka bat deskantsatu ondoren, infernu ibiltarira itzultzeko ordua iritsi zitzaigun.

Gaueroko errituala mantenen-

Pike, apusturen bat edo beste eta barre artean, Salamancara heldu ginen. Bertan bazkaldu genuen, aurretik ikusi genuen taberna batean. Gero, etxe-koentzat opari bila aritu ginen dendetan. Salamanca ikusteko tarte bat ere izan genuen eta oso hiri dotorea iruditu zitzaigun. Taldeko argazkia egin genuen eta berriro ere autobusera itzuli ginen. Oraingo honetan, mugikorra, musika eta lo-kuluxka txandakaturaz joan ginen Hernanira iritsi arte. Bakoitzak bere maleta hartu eta gurasoen bila hasi ginen. Besarkada eta muxu artean egin ziguten ongi etorria guraso guztiok. Oso nekatuak geunden eta etxera lehenbailehen iritsi nahi genuenez, lagunak agurtu genituen, hau esanez: "bidaia bikaina izan da!" ■

Egileak:

Lide Torres Lamuedra, Nahuel Valdebenito Villar eta Iraitz Apeztegia Arrondo

IBILBIDE LITERARIOA

Epilogo bat

ZEURE ahotsaz paperean idatzitakoa errezeztatzeko mikrofono bat, mezua entzuleei helarazteko bafle bat, dena garraiatzeko karretilla txiki bat eta poesia; besterik ez zen behar izan pasa den Apirilaren 30ean Hernani osoa zeharkatu zuen literatur ekitaldia aurrera eramateko.

Hori, eta parte hartzeko gogoia; entzuleak eurak izan baitziren igande euritsu hartan poesia errezeztatu zutenak. Eman eta jaso, batzuk euren poema propioekin, baina gehienago beste norbaiten ahotsa altxatuz; bai euskaraz, bai eta katalanez, baina beti ere gai beraren inguruan: Heriotza, amaiera, istorio baten azken kapitulu den Epilogoia.

Anariren "Epilogo bat" diskoan oinarriturik eta bere laguntzarekin egin zen ekitaldi hau. Autobus edo tren geltokiz geltoki, geldiune bakoitzean abeslariaren kantu bat zuzenean entzunez eta bizpahiru poema irakurriz. Hilerrria izan zen abiapuntu, gaiarekin bat eginez, eta han Anariren kitar hotsarekin batera Maialen Lujanbioren bertso inprobisatua entzun ahal izan genuen, Agur Jesusen Ama doinuaz.

*"Lehengoak "il ciran"
Gaur dena da kea
Ziur da gutaz laster
Hori esatea
Azkenaren azkena
Hutsaren atea
Onartuko diguzu
Bizkar ematea"*

*"Denbora kontaketa
Aurrekoz-atzeko
Zure ekarpena
Beti hotz antzeko
Itzuliko gera, bai
Lurraz gozatzeko
Artean bizitza bat
Dugu osatzeko"*

Eta horrela, markesina, aterpe, lirika edo aterkietan babesturik, goiza igaro genuen denok batera. Amaierari buruz gogoeta eginez, bai, baina bidaiaz gozatuz. ||

Egilea:
Jonas Casado Etxeberria



BIDAIA

Piraguetan blai

Maiatzaren 8an eta 9an 3. mailako ikasleak Bertizera joan gara piraguetan ibiltzeko asmotan.

GOIZPASA polita izan zen eguraldiak lagunduta, izan ere, nahiko bero egiten zuen erre-kara sartzeko.

Lehenengo eta behin, iritsi eta neoprenoak eta materiala jantzi genituen. Ezin estuago genuen gorputza eta arropa soil horrekin berotu egin ginen. Ondoren, autobusarekin Bertiz-eraino joan ginen. Bertan, ikastaro teorikoa egin genuen, piragua nola erabili ikasteko. Eta segituan piraguak hartu (irakasleren bat ere sartu zen!) eta uretara joan ginen praktikatzera.

Hasieran busti, ezker-

eskuin biraketak praktikatu eta horrelakoak egin genituen, baina segituan ur-lasterrak jaisten hasi ginen eta hor etorri ziren komeriak. Batzuk erori, beste batzuk, ez atzera, ez aurrera... baina ederki pasa genuen susto txikiak baino ez zirelako. Galdialdiak egin genituen, baintzeko, edota indarra hartzeko, eta, hauetako batean, zubi baten aurretik gelditu ginen urputzu batera salto egiteko! Ez zegoen altuegi baina errespetua ematen zuen... Nahi izan zuenak salto egin zuen eta besteak bitartean begira.



Berrito piraguak hartu, azkeneko ur-lasterrak pasa eta oraingoan errepidez aterpetxeraino. Aldageletan aldatu, bokata jan eta konturatu orduko autobuse-

an ginen. Azkar pasa zitzaigun goiza, eta, aukeran, nahiago genuen lotara gelditu; izan ere, maiatzaren 24an eta 26an bueltan gatzoz Bertizera arroiletan

gora eta behera ibiltzera. ||

Egileak:
3Ako ikasleak